


POLIEDRO ERREGULARRAK


Poliedroa erregularra da:

- Aurpegi guztiak erregularrak izanez gero.
- Aurpegi guztiak berdinak izanez gero.
- Erpinetako bakoitzean ertz kopuru bera bilduz gero.


Bost poliedro erregular baino ez daude; **solido platonikoak** deritzegunak dira.




TETRAEDRO
ERREGULARRA



KUBOA



OKTAEDRO
ERREGULARRA




DODEKAEDRO
ERREGULARRA



IKOSAEDRO
ERREGULARRA

1) Erreparatu argazki hauei eta esan zer poliedro erregularra diren.



2) Lotu gezien bidez.

Tetraedroa

Kuboa

Oktaedroa

Dodekaedroa

Ikosaedroa

6 aurpegi karratu

12 aurpegi pentagonal

4 aurpegi triangular

20 aurpegi triangular

8 aurpegi triangular

3) Ikosaedroaren forma duen egurrezko gailu bat daukagu. Aurpegietako batek 11 cm^2 -ko azalera du. Oihalez estali nahi badugu, zer azaleratako oihala beharko dugu osoan estaltzeko?



4) Kuboaren forma duen armairua daukat eta ertzak 20 cm -ko zurezko estrabeen bidez sendotu nahi ditut. Zenbat zentimetro estrabe beharko ditut armairua sendotzeko?

